

ARANTXURIENE BASERRIA
C MAILA

INTXAURRONDO 59-61



Egile eta data ezezagunak

Deskribapena

Fatxada nagusiari dagokionez, alboan duen Larrotxene baserriaren antzeko eraikuntza. Izan ere, zurezko bilbaduraz ebatzita dago goiko solairuetan, eta harlangaitz hornez perimetroaren gainerakoan. Behe oina, lehen oina eta bi isurkiko zurezko estalkipeko bigarren oina ditu. Luzera handiagoa eta oina zabaldua dauka, beharbada, hurrenez hurren egin zaizkion handitzeen ondorioz.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko erregimena:
 - A.- Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: leihoetako arotzeria; alboko baoak; behe oineko aldaketak eta behe oineko alboko eranskina.
 - B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak eta zurezko egitura bilbaduran eta estalkian.
 - C.- Handitzeko edo aldatzeko murrizketa partikularrak: jasodurak ez dira onartzen.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzekak: behe oineko baoak birjartzea.